

Gipuzkoako ardiek mingaina ubel eta begiak borobil

Gipuzkoako Donostialdeko ardiek harriturik begiratzen dute eskortetatik. Aktualitateko izar bihurtu dira, zergatik eta gizakiengan –artzainaren ekonomian bai– ondoriorik ez duen gaixotasun batengatik. Alarma piztu da, neurri zorrotzak hartu... eta gaitzaz lehen baino askoz gehiago ez dakigu.

KOLDO OTXANDORENA du izena film honetako heroia, baina komunikabide guztiek Neiker-i egotzi zizkieten meritua. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailaren menpe dagoen enpresa-erakundea da Neiker, eta honek berretsia egin zituen Oiartzundik bidalitako odol analisisen arabera ardiok Mingain Urdina zeukatela. Baina Otxandorena albaitari gaztea izan zen –hala plazaratu du *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak– urri bukaeran nekazari batzuen kontsultak telefonoz jaso, susmo txarra hartu, ardi gaixoak gertutik ikusi eta Gipuzkoako Diputazioako Nekazaritza departamenduan alarma piztarazi zuena.

Ondorengo egunetan, nekazariei gutxitan adinako orri eta minutu kopurua eskaini zieten euskal berripaper eta telebistek. Albisteari arreta handiz ez erreparatzekotan –nork irakurtzen ditu hizki txikiak?– pentsa zitekeen hegaztien gripearen tamainako arazoa sortu zela Gipuzkoan. Gero pixkanaka zabaldu dira bestelako mezuak; funtsean pertsonak ez dutela gaitz honen inolako beldurrik izan behar, ganaduzaleen arazoa dela. Baina espektakuluzko komunikazioaren legeek ez dute ezer barkatzen, eta artzaintzako kaltea egina dago.

Gipuzkoan abereen osasunaz okupatzen diren albaitariak Mingain Urdina –euskaraz agian hobeto esango genuke “ubela”– noiz iritsiko zain

zeuden. Baina espero zutena ez zen orain iritsi den birus bera. European barrena Belgikatik abiatu eta Alemaniari eta Frantziari barrena hedatzen ari dena 8 serotipoko birusa da, eta honek 2008an jo behar zuen gure atea.

Aldiz Oiartzunen lehenbizi eta ondoren Donostialdean aurkitu duten Mingain Urdin mota 1 serotipokoa da. Serotipo hau asko barreiatu da urteotan Espainiako hegoaldean, eta aurtent bertan –*El País* egunkariak publikatu berri duenez– 72.000 azienda hil ditu Andaluzia, Extremadura eta Gaztelamantxan. Preziatuak izan behar dute Gipuzkoako ardi latxek, Espainiako 72.000k kasik inork asaldatu ez eta gure zientia erdi urri batek hainbeste harrabots egin duenerako.

Gipuzkoako albaitariak berek ere erantzun baino galdera gehiago daukate. Hasteko, nola iritsi da 1 motako birus hau, normalean Kantaurialdeko parajeak baino beroagoetan bizi den *Culicoides immicola* xomorroak transmititzen badu? Erantzun posible bat Gipuzkoa zeharkatzen duen N-1 errepideak eduki lezake: azienda trafikozugarria dago karretera horretan, eta tartean kontrolik gabeko abere askorena. Baina zergatik da hain hilgarria Gipuzkoan azaldu den barietate hau?

Galderak galdera, Gipuzkoako agintariak erabaki dute bakunazio kanpaina masiboari ekitea. Oiartzun aldeko lehen kasuak aurkitu dituen Koldo

Latxa arrazako ardi hau Interneten ipini du “Goierritarra1” sinatzen duenak. Argazki txikian ageri dena *Culicoides immicola* eltxoa da, Mingain Urdina eragiten duen birusa garraiatzen duenetako bat. Eltxoa ardi eta behien odola xurgatetik bizi da eta beregan daraman birusa transmititzen die abereei ziztada egitean. Birusa jasotzen duten abereak ez dira denak gaixotzen, horretarako joera edo immunitate sistema ahula dutenak baizik. Birusetan badira munduan 24 serotipo ezberdin. Mingain Urdina lehenbiziko aldiz Hegoafrikari ezagutu zen, XIX. mendean harantz eramandako merino arrazako ardiak gaixoarazi zituenean. Luzaz egon zen geroztik Hegoafrikara mugatua, baina gero mundu osora zabaldu zen. European, azken urteotan Mediterraneo ertzeko herrialde beroetan zegoen zabaldua. Uda honetan Belgikan azaldu da, eta geroztik abiada osoan barreiatu.

Otxandorena albaitariak aipatu zuen txertoak ipintzen astiro joan behar zela, artalde batzuk bakunatu eta haien jarraipena eginez. Beste aditu batzuk jarrera berekoa ziren. Baina Diputazioak iragarri du herrialde horretako ardi guztiak txertatuko direla epe laburrean. Hala ere, txertaketaren inguruan oso iritzi ezberdinak daude adituen artean. Eta gaitz honekin erabili beharreko estrategiaz ere bai.

Xomorroak eta hesiak

Lapurdiko artzain laborari baten mezuari esker ezagutu du ARGIAK albaitari talde batek eritasun honetaz daukan bestelako ikuspegia. GIE Zone Verte elkarteak dozena bat albaitari edo marexal biltzen ditu, bat Euskal Herrikoa, eta Frantziari nekazaritza biologikoan ari diren baserritarrei aholkularia eskaintzen die. Zone Verte honek Interneteko bere gunean irailean ipini zuen honako dokumentua Paul Polis doktoreak idatzia: *Fièvre catarrhale ovine et bovine*. Mingain Urdina ingelesezko “Blue Tongue”ren itzulpena baita, frantsesez ardien –eta behien– hotzeriazko sukarra (FCO frantsesezko sigletan).

Artikulu horrek bigarren titulu txikiagoa badu: *Les réalités écologiques face aux illusions administratives et réglementaires*. Izan ere, Polis doktoreak dioenez, huts egin du Europak gaixotasun honen aurrean hesia jarri eta ez sar-



tzea lortu zitekeelako ametsen: 2000. urtean azaldu zen Italia hegoaldean. Hesirik ez da. Joan den uztailen Belgikan azaldu eta geroztik abiada bizian zabaldu da Frantzia, Alemania, Herbehereak eta Luxenburgon barrena. Europako eskualde horietan eltxoa beste bat da, *Culicoides obsoletus*, 1 motako birusa transmititzen du, eta horren kontra pestizidak erabiltzera derrigoritu ditu administrazioak laborariak. Polisek dioenez, zerbaitetan ari direla itxura emateko hartu dira neurriok, alferrikakoak dira, farmaziako laborategiei etekinak emateko ez bada.

Polisen aburuz, inguruko 150 kilometrotan ganaduen mugimenduak oztopatzea bezalako neurriak gaitza gelditu daitekeela pentsatuz hartu ziren. “Naturaren fenomenoak neurri

administratiboz aldarazteko amets modernoak hemen ere bere inefikazia erakutsi du”.

Talde honen iritzian, Mingain Urdin edo Ubela gaixotasun arina omen da lehendik endemikoa den lurraldeetan. Afrikan adibidez. Ez da kutsakorra, bektoriala baizik: eltxoak pasatzen du birusa, baina ez abere batek besteri. Gaixotasuna endemikoa den lekuetan ikusten da badirela abereak seropositiboak baina sintomarik garatu ez dutenak. Esplikazioa: “Eltxoak ez du eritasuna zabaltzen. Abere bat gaixotzen da birusak horretarako prest aurkitzen badu”.

Afrikan gaitz honi bertako arrazek edo bertara ondo egokituek edeki egiten omen diote aurre, eta aldiz Europatik eramandako arraza hautatu

eta produktiboez askoz okerrago, ahulago daudelako.

Bakunatzeen aurrean oso kritikoak dira Zone Verteko al baitariak. Bakunen arrisku gabezia ez fidatzeaz gain, Mingain Urdinak berak immunizatu egiten omen du aberea —akabatu ez duena, noski— eta selekzio natural horrek dakar erresistentzia garatu duten abereek aurrera segitzea.

Al baitariak direnez, gaixotasunaren kontrako gomendio praktikoak ere eskaintzen dituzte. Prebentzio modura, azienden immunitatea hobetzeko magnesio kloruroa erabiltzea, eta eltxoak uxarazteko olio esentzialak, geranium eta labandazkoak, adibidez. Beren webgunean homeopatia mailako botikak ere aipatzen dituzte, eta fitoterapiakoak.

Baina deigarria egiten da marexalok egiten duten ezjakintasun aitortza. Alegia: birusa eltxoek pasaratzen badute, ezer gutxi dakitela ez haiek eta ez beste inork eltxo horiez. Onartzen bada FCO edo Mingain Urdin dagoeneko Europar dagoela eta betiko hemen geratuko dela —ezin dira dauden *Culicoides* guztiak hil— horiekin elkarbizitzeko askoz sakonago ezagutu beharko genituzke. Paul Polisek salatu du Frantzia osoan entomologo bakarra daukala Nekazaritza Ministerioak, hura erretretan sartzeaz. “Ministerioan lan egiten da agrokimikoetako *lobby*en mesedera eta ez dago denborarik biologiarentzako”. Birus berria hemen gertatzeko iritsi da. Adi ardiak txertatzeari: gogorra izanen da eztabaida. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Produkturik onenak,
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena
bataurreko graduatu,
ukipen-lente,
audiofono eta
eguzkitako
bataurrekoetan.

ZINKUNEGI OPTIKA

Hemani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskaltel.net
TEL.: 943 420 624

K A L I T A T E A